

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko irailaren 19a / 642. zenbakia



EMAKUME TXOKOA

Berdintasunaren eta emakumeen heziketarako eta integratzearako guneak zabaldu ditu ateak.



ORAIN ETA HEMEN: AUTO BARIKO EGUNA/8 • KIROLA: ISA CASADO, LAUGARRENA MULHACENEN/11

ARGAZKIA: UBANE MADERA

PROFESIONAL LIBERALEN GIDA/23

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA




Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu tabako kajetan jarri biher dittuen argazkixen kontue?




JUAN ANTONIO SANTIN
Langillie

Egun bat daroiet erre barik, baiñe ez kontu horregatik. Argi dau erretie kaltegarrixe dala, baiñe horreik argazki desagradabliok tabako kajetan ipinttie oso kanpaina agresibue da.



INESA BAÑOS
Iksalíe

Erretie horren kaltegarrixe bada, zergatik saltzen daue tabakue? Horreik argazkixok jarri biherrien tabakue itxeko lagungarrixe dien telefonuek jarri leikien. Positibue izengo litzake.



EMILIO DEL CAMPO
Langabie

Neri gusto txarrekue dala pentsetan jat, txarrikerixie. Aspaldittik dakigu erretie txarra dala, eta nahiz eta letra haundiz edo argazkixekin ipiñi, jentiek iguel erre biher dau.



AITOR BENGOA
Langillie

Neuri ez dust askorik inportata. Erreten jarraitu gure dauenak iguel-iguel erreko dau. Nahiko kanpaina agresibue dala esango neuke, baiñe esaten dotzuten moduen, neuri parra.



XABI URKIA
Iksalíe

Neuri ondo pentsetan jat. Jentiek oin jakingo dau tabakuek zenbateraiñoko kaltie egin leiken. Horreik argazkixok diela-eta jentie hase-re dabil; horrek esan gure dau eraginkorra izengo dala.



INMA ARMENTEROS
Langillie

Sei hillebete daroiet bape erre barik, eta argazkixena ondo pentsetan jat. Tabakue oso kaltegarrixe da, eta edozein neurri ona da, nahiz eta neurri gogor samarra izen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK EUSKARAREN ALDEKO EKIMENA AEDk euskararen aldeko kanpaina jarri du abian. *Hemen lehenengo berbia euskaraz ein zeinke* lelopean, mahaian ipintzeko karteltxoak eta erakusleihotarako eranskailuak bidali dituzte herriko 350 saltokitara. Helburua da herriko dendariak eta jendaurrean lan egiten dutenek bezeroari lehenengo berba euskaraz egitea, eta hori agertzea.

ASTEKODATUA

53.421

SARRERA IZAN DIRA KANPOKO IGERILEKUAN

Musakolako kanpoko igerilekua zabalik egon den denboran, ekainaren 14tik irailaren 14ra, 53.421 sarrera izan dituzte. Uztailen jende ugari ibili da -gehien-, baita abuztuan ere.

BESTEKEESANA

“ Historia idazten hasi zenetik herri honek bi izen gutxienez izan ditu. Eta izen horiek markatu dute bere

historia. Zaharrena izan zen Arresate edo Arrasate. 1260tik aurrera, berriz, Gaztelako erregeak Mondragon izena eman zion hiri gutuna egitearekin batera, edo Mondragon, gaur geratu den bezala. Harrezkero, azken 700 urteotan, hori izan da nagusi. Hainbeste, non euskaldunak izena euskaratu eta Mondragoe izendatu genuen. (...) XIX. mende erdian mondragoetarren %96k bazekien euskara. Gaur egun, berriz, bizilagunen %54k bakarrik. Tartean daude gerra zibil bat, 40 urteko diktadura eta etorri zen inmigrazio handia (...). Baina adituek diote euskara bizkor berreskuratzeko bidean dela herria”

JOXE ARANZABAL
‘ARRASATE MONDRAGON IRUDIAK’/03-09-09

HERRITARRENBERBAK/ Iker Ezpeleta



Irteera operazioa

Opor garaia bukatua dela, gehienontzat behintzat, “irteera operazioa” hizpide zuen idatzi bat gogorarazi gurako nuke. Zera zioen denok batera eta batek daki nora irtetearen gainean:

“Irteera operazioa deritzo uda garaian pertsona orok egin beharreko bizimodu-lifting-ari (...) premia baino gehiago da moda. Plazera baino gehiago posea. Lantegiko zamak eragindako arnasmahia baino, lagun artean eta gizartearen elkar kutsaturiko garaioetako antsietate joera. Koitadu gupidagarri bat ez izatekotan, irten egin behar da.

Eta irteera mota honek, beti ohi du berekin buelta. Kanpoa, etxean kontatzeko baita askotan ederren. Itzuleran argazkiak erakusteko. Zer kontatu berezi bat edukitzeko, ahal dela exotiko samarra.

Opor osteko lagunarteko solasa, zirkuan bezalako ‘nik are zailago...’ erredoble eta

guztiko bat da; txandakako erakustaldi bat: zeinek bitxien, zeinek desberdinen, zeinek arrisksuen... egin dituen oporrak. Erdi-arduragabe, erdi-luzitu grinez egindako konpetizio txikia. ‘Irabazlearentzat’, oporren plazera bera baino gozagarriagoa”.

“Ez gaitu gizarteak bultzatzen oporren ikuskizunera? Zein alternatiba dauka beste modu batera bizi gura duenak?”

Ados, baina nago kontu garrantzitsu bat ahaztu edo aurrekusi ez zuela. Hainbeste mugimenduk ezinbestean dakarren errepideetako odolustea. Nork ez du ba udako bidaietan auto istripuetan ezagunen bat galdu bada?

Noski hori daramagun bizitza ‘onak’ ordaindu beharreko balio bat moduan ikusten da gizartearen. Baina ez gaitu gizarteak berak bultzatzen oporren ikuskizunera? Zein alternatiba dauka horrela oporrak igaro eta beste modu batera bizi gura duenak?

Argi eta garbi dakar aurreko idatziak: Koitadu gupidagarri bat ez izatekotan... hainbeste gauza egitera bultzatuak ikusten gara!...

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /11

KULTURA /14

Salaketak Ederlani

Herritar batzuek salaketak aurkeztu dituzte Ederlani kontra, botatzen dituen hautsengatik.

Domekan, Besaide Eguna

Urtero moduan, domekan Besaide Eguna ospatuko dute, eta ekitaldiak 10:30ean hasiko dira.

Goikobaluren entseguak

Goikobalu abesbatzak talde berriak osatzen dihardu, eta entseguak hasi ditu.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bollinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galnazarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- ZAPATUA, 20**
Corcuera. M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- DOMEKA, 21**
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 22**
Amezua. Santa Marina 32.... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 23**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 24**
Ruiz. Maala 31..... 943 79 14 09
- EGUENA, 25**
Español. Araba etorb. 17..... 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 26**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57
- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

BERBALDIA ETA 'KLOWN'-A
Eguenean, irailaren 25ean, Eburne Pasabaneke *Emakumea eta mendizaletasuna* leloa duen berbaldia egingo du, eta Oihulari Klown taldeak berbaldiaren *Klownklusioak* egingo ditu. Emakume Txokoa (Uarkape pilotalekuaren atzealdean) egingo dute, 19:00etan.

EROSKI FUNDAZIOA
Eroski Fundazioak bi berbaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Martitzenean, irailaren 21ean, Raquel Barcenilla psikologoak *Komunikazioko trebetasunak. Zer jakin behar dugun* izeneko berbaldia egingo du. Eguaztenean, berriz, Alberto Rodriguez medikuak *Komunikazioa eta sexualitatea 50etik gorako bikoteetan* leloa duen berbaldia egingo du. Biak ere Monterronen, 16:30ean.

KRISTAU HEZIKETA
San Juan Batailatzailea parrokiak ikasturte honetako kristau heziketa eskolak antolatu ditu. Interesatuta dauden lehenengo mailako umeen gurasoek honako egunetan jo beharko dute San Juan Bautista parrokiara: astelehenean, martitzenean edo eguaztenean (22, 23 eta 24), 17:00etatik 19:00etara bitartean.

AEDren AGENDA

ZAHAR BERRI
Zahar Berrin euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak behar dituzte elkarrizketak praktikatzen laguntzeko. Jo AEDra izena ematera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren akzioak oraindik salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldez.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Azoka plazan saltoki gehiago ireki zituzten

Azoka plazan saltoki gehiago ireki zituzten. Saltoki finakoak bost izan ziren: bat ogia eta esnea saltzeko, bi harategi, eraikuntza materialak saltzeko bat eta taberna-kafetegi bat. Horiez gain, eguazten eta egubakoitzeko saltzaileentzako beste saltoki batzuk egokitu zituzten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eskatza"



Sukaldea.
—Gaur sukalde esaten da ia etxe guztietan eta ezkat gutxi batzuetan.


GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 10	10 °C
MAXIMOA Martitzena, 16	33 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	4,4 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 10	24 °C 10 °C 2,7 l/m ²
Eguena, 11	20 °C 15 °C 1,5 l/m ²
Egubakoitza, 12	24 °C 15 °C 0,2 l/m ²
Zapatua, 13	27 °C 14 °C — l/m ²
Domeka, 14	26 °C 12 °C — l/m ²
Astelehena, 15	31 °C 11 °C — l/m ²
Martitzena, 16	33 °C 10 °C — l/m ²

Bergerako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ugalde zinegotziari elkarrizketa

Joseba Ugalde zinegotzia elkarrizketatu dugu. Sustapen-Estrategikoa izeneko saila zuzentzeaz arduratuko da datozen lau urteotan. Udalarren ikasturte hasiera eta ingurumenarekin lotutako hainbat kontu izan ditugu hizpide. Elkarrizketa hori zapatuan eta domekan izango da berriro entzungai, 11:00etan. Gainera, Emakume Txokoa ezagutzeko aukera eskainiko dizuegu, Esther Lizarralde, berau zuzentzeaz arduratzen den dinamizatzaileaz. Aurten ireki dute.



Arrasate Irratian saio bat egin gura dut!

Arrasate Irratian saioaren bat egin gura baduzu, orain duzu zure proposamena aurkezteko aukera. Irratira dei egin, eta esan zeintzuk diren buruan darabilzun ideiak (943 71 17 31). Era guztietako saioak egin daitezke: musikaren gainekoak, elkarrizketekin osatutakoak, kirol saioak... Programak iluntzean edo gauean eskainiko ditugu, baina aukera dago aurretik grabatzeko. Beldurrak alde batera utzi eta ausart zaitez irratian esatari izaten!



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
- 09:00-11:00 **UDA GIROAN Albisteak.**
Elkarrizketak.
Hondartzen, igerilekuen eta urtegien egoera.
Eguraldi iragarpena.
Agenda.
- 11:05 **Musika.**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- ZAPATUA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak:** Joseba Ugalde, Ezker Batuko zinegotzia; Esther Lizarralde, Emakume Txokoko dinamizatzailea; Iban Toledo, Mikel Alberdi eta Andoni Goitirekin Senegaleko bidaiari; Iñaki Etxebeste biologoarekin Norvegiako baleak ezagutzen...
- DOMEKA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Akei erraustegia berritzeko lanak hastear

Udaleko Ingurumen Saileko arduradun Joseba Ugaldek jakinarazitakoaren arabera, datorren hil bukaeran hasiko dituzte Akei erraustegia berreskuratzeko lanak. Hain justu ere, lan horiek egiteko proiektua eginda dago; orain, esleitzea falta da. 240.000 euroko aurrekontua dago.

Akei erraustegia dagoen lekuko lurak kutsatuta daude, horrenbeste urtean zaborretarako erabili eta gero. Orain, gune hori berreskuratu egingo dute eta gero, beste zerbaiterako erabili. Edozelan ere, oraindik zehaztu barik dago zertarako izango den. Ezker Batua alderdiak, adibidez, natura interpretatzeko zentro bat ipintzeko erabil dezatela eskatu du.

Gure kostaldea hobeto ezagutzen

Gure kostaldearen gainean Monterronen dagoen erakusketa datorren domekan, hilak 21, bukatuko da. *Azterkosta* izena du erakusketak; zortzi panelen bitartez, gure kostaldearen ezaugarriak hobeto ezagutzen laguntzen digute: korrontek, itsasaldiak, sakonera, klimatologia...

Horrez gainera, gure kostaldeak ematen duen gozamenerako aukera aprobetxatu, eta zenbait txoko eder proposatzen dizkigute; Jaizkibeletako labarrak edo Aturri ibaiaren bokalea, esaterako.

Harkaitz Otazuaren aldeko manifestazioa

Astehenean, 150 bat lagunek manifestazioa egin zuten Harkaitz Otazuaren heriotza salatzen. Ezker abertzaleko hainbat kidek adierazitakoaren arabera, ez dute sinisten gertatutakoaren gainean emandako bertsio ofiziala. Euren esanetan, oso arraroa da bertsio ofizialak esaten duena; hau da, atentatuaren lekutik 50 metrora agertu zela Harkaitz Otazuaren gorpua eta bila ibili ziren 10 orduetan ez zutela lehenago aurkitu. Mobilizazio gehiago iragarri dituzte.



Erromesaldi arrakastatsua izan da aurten

Sekula baino jende gehiagok hartu zuten parte Arantzazuko erromesaldian. Goizean goiz 100 bat lagunek hartu zuten Arrasatetik Arantzazurako bidea, eta gero, Gesaltzan beste 40 bat lagun zituzten zain. Tartean, Arrasateko alkatea eta EAJko, PSE-EEko eta PPko ordezkariak ziren.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Arrasateko beste txokoak

Joan den astean, Arrasate Argitan elkarteak liburu mardula kaleratu zuen. Herriko argazkilari eta kazetari batzuek etxerako moduko liburua egin dute. Arrasatek enpresa munduan duen garrantziaz baliatuta, esportatzeko lana egin dute. Batez ere argazkien bitartez, kanpora Arrasateren beste ikuspegi bat erakutsi gura izan dute. Baina, egia esan-


da, arrasatear askok ezagutzen ez dituzten edo inoiz erreparatu ez dituzten txokoak eta alderdiak ere eraman dituzte irudietara.

Hilabete honen bukaeran Arrasateren gaineko beste liburu bat aurkeztuko dute: *Arrasateko txoko naturalak*. Bi biologok herrian gelditzen diren paraje naturalenak aztertu eta hanga landaretzaren gaineko lana egin dute.

Laster izango dugu horren berri. Hala ere, ikustekoa izango da liburuan aztertu dituzten txokoek zenbat iraungo duten. Ezagun da gure ibarra eta Arrasate bera azpiegitura erraldoiez inguratzen dabilzala.

Herri honek, Arrasatek, badu, bai horixe, enpresez gain, beste gauza asko, eta horiek ezagutzera ematea ezinbestekoa da. Halako proiektu gehiago jaito daitezela eta Udalak behar beste babes ditzala!

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

EMAKUME TXOKOA, APROBETXATZEKO MODUKOA

Emakume Txokoa zabaldu dute Uarkaperen atzeko aldean. Oro har, berdintasunaren eta emakumeen heziketarako eta integrazioarako gunea da. Gunea topaleku gisa, ikasteko txoko gisa, lan egiteko... edozertarako erabil daiteke. Eta edozeinen eskura dago; jakina, betiere, lehen aipatutakoak lortzeko erabiltzen

bada. Goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara dago zabalik. Han, besteak beste, Esther Lizarralde izango dugu, behar denerako laguntzeko gertu. Duda barik, oso leku erabilgarria, aprobetxagarria eta interesgarria da. Leku gutxitan aurkituko dugu halakorik. Aprobetxa dezagun. /U.M.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

ELKARRIZKETA

IÑAKI ETXEBESTE/ BIOLOGOA

“Balea bat ur gainean azaltzen zenean, turistek kamera hotsa baino ez zen entzuten”

XABIER URZELAI / ARRASATE IRRATIA

Biologiako ikasketak amaitzeko asmoz abiatu zen Iñaki Etxebeste Norvegia aldera. Azken bi urteotan laborategiko lana egin du Iñakik, landareak ikertzen. Udan, baina, bestelako lan baten izan da: hain zuzen, turistek baleak erakusten ibili da Norvegiako uretan.

Landareak ikertzen ibiltzetik baleak erakusten dituen gidari izatera. Zer dela eta?

Biologiako azken urtea Norvegian egin nuen, eta ikasketak amaitu nituenean bi urteko masterra eskaini zidaten. Masterra oraindik ez dut amaitu. Nirekin lan egiten duen lagun batek eskaini zidan lana: udan turistek baleak erakusten ibiltzea, hain zuzen.

Diru apur bat ateratzeko lana, hortaz.

Bai, baina sekulako esperientzia izan da. Lagunak urtero egiten du lan hori, baina nik banuen beldur apur bat; baleen gainean banekien zerbait, baina hortik gidari lanak egitera... Gero konturatu nintzen turistekin lan egiteko ez dela askorik jakin behar; eta horrez gain, mordoa ikasi dut.

Non egin duzu lan hori? Eta zer-nolako lana da?

Baleak ikusteko bidaiak antolatzen dituen enpresa baten egin dut lan. Enpresa hori Lofoten uharte famatuaren ondoan dagoen herritxo baten dago. Baleak erakustez gain, ikertu eta sailkatu egiten dituzte, eta baleen gaineko museo bat dute. Baleak ikustera joateko, berriz, itsasontzi bi dituzte. Itsasontzi bat 30 metro luze da; bestea, berriz, 38. Itsasontziek hemengo kostaldean ikus daitezkeen baxurako itsasontzien antza zuten.

Lana, berriz, oso entretenigarria zen. Gidari guztiak egoitza berean bizi ginen, museoaren ondoan. Egunean, gehienez, bi bidaiak egiten nituen: turistek behar zutena eman, azafata lanak egin, baleen gaineko azalpenak eman... Eta noizean behin botakaren bat garbitu!

Erraza izango da, ba, itsasontzian zorabiatzea.

Oso erraza. Jendea ez dago itsasontzian ibiltzera ohituta, eta zorabiatzea da normalena. Guk zorabioaren kontrako pastillak eskaintzen genizkien, baina ezin dugu inor pastilla bat hartzera behartu. Askok ez zutela behar esaten zuten, eta gero poltsa eske etortzen ziren. Sikiera poltsara egingo balute!

Bidaia interesgarria da?



Iñaki Etxebeste, ezkerrean, itsasontziko beste gidari batekin.

Oso interesgarria. Kontuan izan baleak ondo-ondoan ikustea ez dela egunero egiten den zerbait. Balea bat ikusterakoan, itsasontziaren motorra ia amatatu egiten genuen, eta isiltasunean balea

uretatik zelan irteten zen ikustea ikusgarria zen oso.

Zenbat balea mota daude Norvegian?

Norvegian zortzi balea mota ikus daitezke, baina guztira ehun

mota baino gehiago daude. Balea mota ezberdinak egoteaz gain, balea bakoitza ezagutzea ez da horren gaitza. Balea bakoitzak hegats ezberdina du, gure hatz-markak moduan. Argi dago turis-

“Egunero ez da balea bat ondoan ikusten; oso lan interesgarria izan da”

“Aurtengo uda biribila izan dela esan dezakegu, 15.500 turista izan ditugu-eta”

ta bat ez dela balea bakoitza zein den jakiteko gauza, baina han lanean ibili eta gero, bateren bat ezagut daiteke.

Turista asko izan dituzue?

Aurtengoa urte biribila izan da, 15.500 turista izan ditugu-eta. Horietako asko Espainiako Estatutik etorri dira, antolatutako bidaietan. Alemanak ere asko etorri dira, baina orokorrean leku askotako jendea izan dugu: italiarrak, holandarrak... Baita japoniar eta txinatarrak ere.

Udako lana amaituta, berriro ere masterrari eutsi behar.


Bai. Ea zorte apur batekin udaberrirako amaitzen dudan. Argi daukadana da datorren udan ere balea artean ibiliko naizela. Dagoeneko esan didate gura badut datorren udan itzultzeko, eta hori egiteko asmoa daukat.

Balea: mirespenak eta tratu txarrak, neurri berean

Euskaldunak XI. mendean hasi ziren baleak ehizatzen. Garai hartan, baina, arrantzaleek baliabide gutxi zituzten, eta ezinezkoa zen balea asko ehizatzea. XX. mendean, aurrerapen teknologikoei esker, estatu askok baleak neurri barik ehizatu zituzten.

Errusia, Japonia, Korea, Norvegia... Estatu horiek dira, besteak beste, balearen ehizan gehiegikeria handienak egin dituztenak. Hauek dira balearen ehizan esanguratsuak diren hainbat data:

Norvegiak egin zuen baleendako ur gaineko lehenengo faktoria, 1905ean. Hainbat estatuk egiten zituzten sarraskiak ikusita, 1946an, hamalau lurraldek Baleak Babesteko Nazioarteko Komisia (CBI) eratu zuten. 1950ean, berriz, Antartidan 325.432 balea ehizatu zituzten.



Hamaika urte geroago, nahiz eta debekatuta egon, Errusiak 1.200 balea ehizatu zituen Argentinan.

1987an, Japoniek lasai asko ehizatzen jarraitzeko bidea aurkitu zuten:

zientziaren izenean egindako ehiza. Argi geratu zen, baina, ehizatutako baleek merkatuan amaitzen zutela. Maiatzean, Greenpeace erakundeak Japonia salatua zuten, oraindik ere ehiza mota hori egiten duelako.

1997an, Japoniak Antartikako baleen santutegian ehizatu zuten; santutegi hura 1935ean egin zuten.

Azkenik, 1999an, Australiak eta Zeelanda Berriak Hego Pazifikoko baleen santutegi bat egiteko proposamena egin zuten. Azken hiru urteotan, baina, santutegi hori egiteko asmoak ez du aurrera egin. Animalia miretsia bezain zigortua izan da balea. Badirudi egoerak onera egin duela; hala ere, lurralde batzuk oraindik ere ehiza komertzialaren aldekoak dira, eta jo eta ke dabilta hori lortu guran.

GIZARTEA/ Emakume Txokoa

Emakume Txokoak ateak zabaldu ditu, eta laster hasiko dira makina bat ekimen egiten

UBANE MADERA

Arrasateko Emakume Txokoa zabalik dago, edozeinen eskura. Oro har, emakumeen heziketarako, integrazioarako eta informazioarako gunea da eta emakumeen, gizonen eta elkarrekin arteko topaleku izan gura du. Irail bukaeran hasiko dira ekimenak egiten.


Astelehenaz geroztik, hilak 15, Emakume Txokoak zabalik ditu ateak. Uarkape pilotalekuaren atzeko aldean dago, erabilera askotariko eraikinaren azkeneko solairuan. Bi sarrera ditu: bata, Otalaratik, igogailu bitartez; eta bestea, Uarkapeko etxeen atzeko aldetik igota. Barruan Maite Barreña eta Esther Lizarralde aurkituko ditugu, edozein zalan-tza, eskaera... argitzeko gertu. Batez ere, Esther Lizarralde arduratuko da jendearekiko arreta zerbitzuaz; eta zerbitzu hori, bereziki, arratsalde egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara.

Udalak eskaintzen duen zerbitzu berria da Emakume Txokoa. Oro har, emakumeen heziketarako eta informazioarako gunea da; emakumeen, gizonen zein elkarrekin arteko lankidetzarako lekua; eta emakumeen integrazioa eta partaidetza bizitzako eremu guztietan sustatzeko ekimenak eta zerbitzuak koordinatuko dituen gunea.

ESKAITZA ZABALA

Hori oinarri moduan hartuta, eskaintza zabala izango du Emakume Txokoak: berdintasunaren gaineko informazioa eta orientazioa, hitzaldiak, ikastaroak...

Hain justu, Edurne Pasaban mendizaleak egingo duen hitzaldiarekin hasiko dute ibilaldia. Eguenean izango da, hilak 25,



Esther Lizarralde jarraitzen du aurrerantzean Emakume Txokoa, arreta zerbitzua eskaintzen.

19:00etan. Horren ostean, Oihulari Klown-ek saioa egingo du. Eta, hortik aurrera, irailaren 29an hasi eta abendura arte denetarik izango da. Besteak beste, *tai chi* delakoa, autoestimazioa, dekorazioarako arteak, salsa eta dantza afro-brasildarrak landuko dituzte hiru hilabeteko ikastarotan. Horietan izena emateko epea datorren astelehenean, hilak 22, egubakoitzera artekoa da. 12

euro balio dute ikastaroek, 6 euro langabeendako.

Eta, ikastaroekin batera, makina bat hitzaldi, diapositiba emanaldi, bideo-forum, eta abar antolatu dituzte.

Oraingoz, ekimenak Emakume Txokoak antolatu ditu. Aurrera begira, berriz, herriko elkarrekin lankidetzan jardun gura dute. Adibidez, Emakume Kontseiluaren proposamenak kon-

tuan izango dituzte euren ekimenak antolatzeko orduan.

GELA BI ETA HAURTZAINDEGI ZERBITZUA
Aipatutako guztia lantzeko hiru gela dituzte. Eta areto nagusia erakusketak egiteko eta haurtzaindegi zerbitzua ipintzeko egokitu dute.

Txokoaren ordutegia honakoa da: 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Telefonoa, berriz, honakoa: 943 79 41 39.

LABUR

Oraingoz ezin izango da EHNA tramitatu udaletxean

Indarrrik gabe utzi dute EHNA tramitatzeko udal akordioa. Joan den maiatzaren 20an onartu zuen aurreko agintaldiko udalbatzarrak akordio hori. Hain zuzen ere, Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztu zuen EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena) tramitatzeko mozioa, eta EAJ-ren eta PPren kontrako botoekin onartu zuten. Gero, Estatu abokatuak errekurritu egin zuen akordio hori. Eta orain, epaia atera arte, bertan behera utzi dute.

Santa Marinako jolaslekua konpontzeko lanak

Santa Marina auzoko erabilera askotariko zentroan dagoen jolaslekua konpondu egingo dute. Hain zuzen ere, oraingo astean egin duten Gobernu batzordeak Coprisa enpresari esleitu dizkio konpontzeko lanak.

Guztira, 8.000 euro pasatxoko aurrekontua dute egin beharrekoak egiteko.

Preso dauden ikasleendako dirulaguntzak


Euskara eta Kultura Sustapenerako batzordeak proposatuta, 1.200 euroko dirulaguntza emango du Udalak preso dauden ikasleei laguntzeko. Hain zuzen, preso egonda UNEDen bidez ikasten dabiltzanei liburuak ordaintzen laguntzeko dirua da. Oraingo astean onartu du proposamena Gobernu batzordeak.

SIKOL

Maritxutarako
elegante jantzi zaitez!

Olarte 31 ARRASATE Tel.: 943 79 89 32





ARRASATE PRESS

laz bezala, aurtan ere Garibai etorbidea itxi egingo dute Auto Bariko Egunean; Maalatik Kontzezinoraino egongo da itxita.

Astelehenean, autoa etxean utzi eta bestelako garraiobideak erabili

UBANE MADERA

Herrian nire autorik gabe izeneko eguna ospatuko dute astelehenean, hilak 22. Hainbat ekintza izango dira; tartean, automobil pribatua etxean uzteko eta bestelako garraiobideak erabiltzeko eskatu dute.

Bigarren urtez ospatuko dute Arrasaten Auto Bariko Eguna. Ekimen horren helburua da jendea konturatzea gaur egun ditugun mugikortasun ereduak sortzen dituzten kalteak (osasunean, ingurumenean), batez ere automobil pribatua larregi erabiltzeaz. Hala, herritarren sentiberatasuna piztea da helburua, jasangarriagoak diren bestelako garraiobideak erabil ditzaten:

garraio publikoa, bizikleta, oinez ibiltzea...

•Esandako moduan, astelehenean, hilak 22, da Auto Bariko Eguna. Hala, egun horretan automobilik ez erabiltzeko eskatu dute Udaleko Ingurumen Sailetik. Eta jakinarazi dute astelehenean autobus urbanoan ibiltzea doan izango dela.

Horrez gainera, biharko, zapa-

Bihar umeendako jaia egingo dute; kalejira, txotxongiloak... izango dira Seberren

tua, eta datorren asterako bestelako ekintzak antolatuko dituzte.

KALEAK ITXITA

Bihar, adibidez, umeendako jaia egingo dute Seberren. 12:30ean kalejira egingo dute; eta 17:00etan, txotxongilo ikuskizuna. Horrez gain, jokoak, gaztelu puzgarriak, musika... ere izango da.

Astelehenean Garibai etorbidea itxi egingo dute, Maalatik Kontzezinoraino. Oinezkoen gunea sortu gura dute. Garraio publikoari eta larrialdiko garraioari bakarrik utziko diote pasatzen. Eta autorik ez erabiltzeko eskatu dutenez, autobus urbanoa maizago ibiliko da. Eta astelehenean zapatuta zirkulazioaren eta garraioaren gaineko erakusketa ipiniko dute Monterronen.

Berriro ere salaketak ipini dituzte Fagor Ederlan lantegiaren kontra

U.M.

Joan den astean hiru lagunek salaketak aurkeztu zituzten, udaletxean, Fagor Ederlanen kontra. Esaten dutenez, Ederlanek botatzen dituen emisioek gorri-gorri uzten dituzte inguruak, ugertuta moduan.

Ez da lehenengo aldia Fagor Ederlanen kontra salaketak aurkeztzen dituztela. Iaz, adibidez, izan zen halakorik. Lantegiak botatzen dituen hautsek ingurua ugertu moduan egiten dute: automobilak, lantegien teilatuak... Autoen kasuan, adibidez, gero, gorritasun

hori garbitzea oso garestia da.

Kontuak kontu, bestetan salaketak izan direnean, aipatutako lantegiaren emisioak neurtu, eta Jaurlaritzak ezarritako mugen dezente azpitik daudela ikusi izan da. Baina, gauza da muga horien azpitik egon edo ez, inguruak zikindu egiten dituela. Eta, gainera, ez dakigula emisio horiek zein kalte eragiten dioten gizakiari. Hala adierazi digu Joseba Ugaldek, ingurumen arloaz arduratzen den zinegotziak.

Gauzak horrela, Udalak hauts edo emisio horiek hartzeko aparatua ipintzea erabaki du. Filtro batzuen bitartez, Ederlanek

botatuko emisioak hartuko dituzte 15-20 bat egunez, eta gero, analizatu egingo dituzte, pertsonen osasunarendako kaltegarriak diren edo ez ikusteko.

EDERLANEN KONPROMISOA

Ezker Batuko zinegotziak esandakoaren arabera, analisisien emaitzak legearen mugen azpitik egon arren, lantegiko ordezkariak herritarrekiko konpromisoa erakutsi beharko lukete, eta halako kutsadurarik ez sortu.

Bestalde, jakinarazi digu azkeneko salaketez gain, epaitegietan Ederlanen kontrako beste salaketa bat ere badela lehenagotik.

Urkulutik bestetan baino ur gehiago kontsumitzen gabiltza

U.M.

Uztailean eta abuztuan egindako uren kontsumoa aztertu eta gero, Udaleko Zerbitzu Sailak jakinarazi du Urkulutik ur asko kontsumitzen gabiltzala azkenaldian. Hori dela eta, neurri bereziak hartzea erabaki dute.

Aurtengo uda berezia izaten dabil, larregiko berotasunaren ondorioz. Besteak beste, berotasun horrek herritarren ur kontsumoa areagotu egin du. Horrez gainera, autobideko lanak egiteko ur erabilera bereziak izan dituzte. Lorategiak ureztatzen ere ur dezente gastatu ei dugu

azken bi hilabeteotan. Industriek bestetan baino ur gehiago erabili dute. Eta, gainera, urak ihes egiten du sarean dauden zenbait zuloetatik. Horrek guztiak eraginda, handitu egin da Urkuluko uraren kontsumoa.

Hori dela eta, neurriak hartzea erabaki du Udalak, ahalik eta lasterren ezartzeko neurriak. Hala, 4.263 euro inbertituko ditu sareak dituen zuloak zaintzeko eta beste 4.500 euro orain arte aurkitu dituzten hiru zuloak konpontzeko. Horrez gainera, inguruko iturrien egoeraren azterketa egitea erabaki dute. Horren harira, 2.500 euro erabiliko ditu Meatzerrekako iturria garbitzeko.

LABUR

Erregaia duen beste biltegi bat aurkitu berri dute Zerrajerako etxebizitzaren lur azpian

Joan den astean isuria ikusi zuten errekan. Oraingo astean udal ordezkariak hura ikustera joan dira. Eta konturatu dira Zerrajerako lurretan erregaia duen beste biltegi bat dagoela, lurpean. Ingurumen arduradun Joseba Ugaldek jakinarazi digunez, handia da, garbitu zuten azkenekoaren adinekoa (65.000 litro olio zituen hark). Hortaz, litekeena da biltegi horrek ere erregai dezente izatea. Orain, biltegia hustu eta garbitu beharra dago, baina lehenengo egoera aztertu gura dute. Zerrajeran aurkitu duten laugarren biltegia da.



Lehenengo berba euskaraz

AEDk euskararen normalizazioaren aldeko ekimena abiaraziko du. Hain zuzen, herritarrekin zuzeneko harremana duten banketxeetan, saltokietan, tabernetan, aseguru-etxeetan... lehenengo berba euskaraz egitea bultzatzeko kanpaina da. Horretarako, herriko 350 lekutara argazkian ikusten duzuen moduko pegatinak eta mahai gainean ipintzeko karteltxoak bidaliko dituzte, bertan ipin ditzaten. Erdiguneko saltokietara eskuz eramango dituzte, eta gainerakoetara postaz. Hala, irailaren azken asterako jaso ez duenak AEDra jo edo hara dei dezala.

Eguraldiak lagunduta, jende mordoia hurbildu da Uribarri-Erguingo jaietara

XABIER URZELAI


Egubakoitzetik domekara arte Uribarriko eta Erguingo bizilagunak jaietan izan dira. Ekitaldiz betetako jaiak izan dituzte, eta eguraldi ona lagun, giro aparta izan da jaietan. Bertsolariak, Mus Txapelketa, herri proba, musika, dantza... Aspertzea, gaitza.

Uribarri-Erguingo jaiak egubakoitz arratsaldean hasi ziren, etxafuego eta trikitilariekin. Ondoren meza izan zen eta meza-oren ostean erretiratuek afaria egin zuten. 130 lagun elkartu ziren Uribarriko erretiratuen elkartearen, eta ederto afaldu zuten. Afaldu eta gero, lorez egindako hiru apaingarri zozketatzeaz gain, Kutxaren eskutik 130 ordulari banatu zituzten. Afalostea girotzea, berriz, Gau Alai taldearen ardura izan zen, eta ondo baino hobeto egin zuten egin beharrekoa, giro aparta izan zen-eta.

Zapatu goizean umeendako jolasak izan ziren. Olarango pilotalekuan, berriz, Fernandok eta Nataliok ikusmin handiko eskuz banako pilota partidua jokatu zuten. Natalio nagusitu zen publikoaren txalo artean (22-10). Horrez gain, Mus Txapelketa egin zuten, eta 16 bikote izan ziren nor baino nor gehiago. Eguna amaitzeko, Gau Alai taldeak jendea dantzan jarri zuen.

Domekan herri probak eta bertsolariak izan ziren Arimazubin. Bertsozaleak gustura geratu ziren Aitor Mendiluzek eta Ekaitz Goikoetxeak botatako bertsoekin. Horrez gain, herri probak ere egin zituzten. Domekako protagonistak, baina, gaztetxoek izan ziren. Ume asko elkartu ziren puzgarrietan, eta Txatxilipurdikoek jolas mordoia egin zituzten. Jaiak, nola ez, musikarekin agurtu zituzten.

ARGAZKIAK: UAN LUIS RODRIGUEZ



Gaztetxoeren gozamenerako Txatxilipurdikoak izan ziren jaietan.



Nor izan zen lehena puzgarritik jaisten?



Aitor Mendiluze eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariak izan ziren Arimazubin.



Hamasei bikote izan ziren Mus Txapelketan.



Gaztetxoek ederto pasatu zuten Usaetxe plazan jarri zituzten puzgarrietan.




Uribarriko erretiratuen elkartearen 130 lagunek afaldu zuten.



PATRICIA RUNAN, EUSKARAZ EGITEN DUEN IRLANDARRA

Egunotan, euskaraz egiten duen neska irlandarra ibili da Txatxilipurdiko lagunekin. Patricia Runan da bere izena, Dublinen bizi da eta 33 urte ditu. Opor egun batzuk dituela aprobetxatuta, Zornotzako barnetegian emango ditu bi aste. Hara joan aurretik, baina, Patriciarekin berba egiteko aukera izan genuen, eta ondo baino hobeto egiten du euskaraz! Horrelako pertsonak argi uzten dute euskara ikastea gogo kontua baino ez dela.



'KULTURISTEN KOFRADIA', IKUSKIZUN ARRAKASTATSUA

Joan den zapatuan, Putz aldizkariak eta AGAKOk literatura ikuskizun berezia antolatu zuten Arrasateko gaztetxean. Kirmen Uribe idazleak *Bitartean heldu eskutik* ikuskizuna eskaini zuen. Haren aurretik, Eneko Barberena arrasatearrak eta Manex Agirre aramaiarrak *Kulturisten Kofradia* literatura ikuskizuna egin zuten. Ehun bat lagun batu ziren, eta oso giro ona izan zen. Ea halako gehiago antolatzen dituzten!

'LIBURU GAZTEA' LEHIAKETAN ESKU HARTU ETA... PARISERA!!!

Arizmendiko Almen guneko ikasleak Parisen izan dira irailaren 8tik 12ra arte. DBHko lehenengo mailako 30 ikasle izan dira Parisen, *Liburu Gaztea 2003* lehiaketan parte hartzeagatik. Esan gabe doa eskolak hasi eta berehala bidaiatxo bat egitea sekulakoa dela. Arizmendi-koak ondo baino hobeto ibili ziren Parisen, eta leku mordera bisitatu zituzten. Argazkia Eurodisneyn atera zuten.



HIRUGARREN TXAPELA ESKURATZEKO SASOIAN BAI?

Bihar, Arrasateko Leintze ehiza eta arrantza elkartekoek Ehiza Txapelketan jokatu dute Santa Cruz del Fierron, Arabako Errioxan. Azken bi urteotan Ramon Ramila izan da txapelketako irabazlea, eta aurten ere gogor ibili da entrenatzen. Kontrario gogorak izango ditu, eta ikusi egin behar hirugarren txapela eskuratzeko gauza ote den. 30-40 lagun izango dira lehiari; hortaz, txapela eskuratzeko ez da batere erraza izango.



XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan Mondrako jokalariek Errenteria aldera joango dira; Touring taldea izango dute aurrez aurre.

FUTBOLA

Zestoaren kontra larregi barkatuta ere, Mondra 2-0 gailendu zen

Arrasateko taldea bigarren postuan da, jokaturako bi partidua irabazi egin ditu-eta

XABIER URZELAI

Ondo hasi du Mondrak Liga Txapelketa, oso ondo. Josu Zubiaren mutilek aurrendenboraldian erakutsi zuten Liga Txapelketa hasiera ona egiteko gauza zirela, eta horretan dabilta. Bi partidu jokatu eta sei puntu eskuratu, ezin hobeto. Zestoaren kontra, baina, gura baino gehiago barkatu zuten.

Joan den urtean baino talde gogorragoak izango dira aurten Atxarbalpen. Horregatik, mondragoe-tarrek aukera bakoitza ondo aprobetxatu beharko dute. Zestoa uste baino talde motelagoa zen: defentsa lanak ondo egin zituen, baina erasorako ez zuten gaitasunik erakutsi. Futbol zelaian Mondrak

agindu zuen, baina lehenengo zatian jokaldi azpimarragarri bakarra izan zen: Ekainek zutoinera bidali zuen jaurtiketa ederra, hain zuzen ere. Gainontzean, Zestoakoek ez zuten estuasun handirik izan.

Bigarren zatian gauzak onera egin zuten. Murua ahalegindu zen, baina aurrelari arrasatearrek ez zuten bestetan izan ohi duen arratsalde biribila izan. Egia da Mondrak ez zuela zortea alde izan, arrasatearrek hirutan bidali zuten-eta baloia zutoinera.

Hala, Iban Garai Muxi-k apurtu zuen partidua. Lehenengo, area ertzean falta egin zioten, eta bere burua area barrura botata epaileak penaltia adierazi zuen. Eta Muruak ez zuen barkatu (1-0). Zestoako bi jokalarik protesta

egiteagatik txartel horia ikusi zuten. Penaltiko jokaldian lortutakoa gutxi balitz, hurrengo jokaldiari ere zuku ederra atera zion Muxi-k: falta bat jaso, antzerki apur bat egin, eta Zestoako jokalaria kalera, bigarren txartel horia ikusita.

AZKEN MINUTUETAN AUKERA ASKO

Epaileak Zestoako beste jokalaria bat ere bidali zuen aldageletara, eta Mondrak ez zuten hori behar moduan aprobetxatu. Eskuin hegaletik jokaldi politak izan ziren; Jon Loiti gazteak etekin ona atera zion daukan abiadurari, baina arrasatearrek aukera garbi horietan kale egin zuten. Bigarren zatian zelairatu zen Jokin Pavok utzi zuen partidua erabakita (2-0).

Besaideko Oroitzapen Eguna ospatuko dute domekan

Domekan menditik osteratxoa egiteko aitzakia ezin proposagoa dute mondragoe-tarrek; mendian hil diren mendizaleak omentzeko asmoz, aurten ere Besaide Eguna ez du-eta kalerik egingo.

Domekan jende asko hurbilduko da Besaiden ospatuko den Oroitzapen Eguna, eta eguraldiak laguntzen badu, giro aparta izango da. Horrez gain, inguruetako mendi taldeek goiz biribila

izan dadin hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

DENETIK

Ekitaldiak 10:30ean hasiko dira. Ordu horretan mendizaleei harre-ara egingo diete txalaparta eta adarrakin. 11:00etan, mendian hil direnen omenez meza izango da.

Mezaren ostean, eguerdian, Elorrioko Dantza Taldeak izango du eguna alaitzeko ardura.

12:30ean mendi taldeetako partaideen eskutik herri probak izango dira.

Arrasatearrok Besaidera joateko hainbat bide aukera ditza-kegu: itzuli polita egin nahi dutenek Kanpanzartik gora egingo dute. Gesalibartik eta Kobatetik gora aldapa ederrak izango dituzue. Nagienek, berriz, Udalaraino autoz joan eta handik egingo dute Besaidera.

FOTOKIROLA



Isa Casado laugarrena Mulhacenen

Isa Casado Mulhaceneneko mendi maratoni erdian izan da asteburuan, Euskadiko Selektioarekin. Atleta arrasatearrek min hartuta korritu zuen proba, eta laugarren postuan iritsi zen helmugara. Postu horri esker, Isa Casado hirugarrena da sailkapen orokorrean, Aizkorriko mendi maratoni bigarren izan zen-eta. Denboraldiko hirugarren eta azken proba urriaren 26an izango da, Katalunian. Sailkapen orokorrari begira proba erabakigarria izango da. /X.U.

FRONTENIS

AUKEA kirol elkarteak gertu du Arrasateko Banakako VII. Frontenis Txapelketa

Arrasateko VII. Frontenis Txapelketa gertu dago, eta txapelketa horretan izena eman gura duzuenok Musakolako kiroldegira joan baino ez duzue. Txapelketan izena emateko azken eguna martitzena da, hilak 23. Frontenis Txapelketa 16 urtetik gorakoei dago zuzendua, eta jokatu ahal izateko kiroldegiko abonatuak 5 euro ordaindu beharko dituzte era abonatuta ez daudenean, berriz, 6 euroren truke jokatu ahal izango dute. Txapelketa Musakolako kiroldegiko pilotalekuan jokatu da.

IGERILEKUA

Joan den astelehenean ireki zituzten barruko igerilekuak, eta kanpokoak itxi

Joan den astelehenean kiroldegira igeri egitera joan zirenek barruko igerilekuak estreinatu zituzten, kanpoko igerilekuak domekan itxi zituzten-eta.

Barruko igerilekua erabili gura duzuenondako, hau da ordu-tegia: astean zehar, igerilekua 07:30etik 21:30era egongo da irekita; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara; eta, azkenik, domeketan eta jaiegunetan 09:00etatik 13:30era egongo da igerilekua erabilgarri.

ATLETISMOA

Mamo Wolderen omenaldian Arrasateko atletek maila polita erakutsi zuten

Joan den egubakoitzean omenaldia egin zioten Mamo Wolde atleta etiopiarrari Elgoibarren, Mintxetan, eta atleta asko elkartu ziren. Arrasateko Atletismo Taldeko atletak omenaldian izan ziren, eta denboraldia hasi ez duten arren, mondragoe-tarrek maila polita erakutsi zuten. Jonathan Perezek 4,75 metroko jauzia egin zuen pertikarekin; horrez gain, Markel Blancok eta Jon Ander Amadok ere maila polita erakutsi zuten 200 eta 400 metroetako lasterketan.

ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldeak Mikel Biteriren omenezko lagunarteko partidua antolatu du

Arrasateko Errugbi Taldean jokatu zuen Mikel Biteri gaztea abuztuan hil zen, Saharan, auto istripuan

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak omenaldia egin gura dio taldekide izan zen Mikel Biteriri. Bihar, 11:30ean, partidu berezia jokatu da Garagartzako zelaian. Atsedendian, berriz, Mikelen senideei zuzendutako omenaldi txiki bat izango da.

Joan den astean, Arrasateko kadete, gazte, senior eta beteranoek lagunarteko partidua jokatu zuten Garagartzako zelaian. Eta bihar ere lagunarteko norgehiagoka izango dute, baina biharkoa partidu berezia izango da, Arrasateko errugbilariek Mikel Biteri mondragoetarra omenduko dute-eta.

Mikel Biteri Zin Arrasate Errugbi Taldeko jokalaria izan zen. Mikelek bi urte egin zituen gazte mailan eta urte bat seniorretan. Hori dela eta, Arrasate Errugbi Taldeko jokalariek eta garai hartan Mikelen taldekide izan ziren lagun guztiek ome-

naldi partidua antolatu dute bihar goizerako.

LAGUNEZ OSATUTAKO TALDEA

Bihar jokatuko duten lagunarteko partiduan bi talde izango dira: talde bat gazte mailako eta senior mailako jokalariekin egingo dute eta beste taldea, berriz, Mikelekin jokatu zuten jokalariek eta beterano mailako jokalariek osatuko dute. Horrez gain, Arrasateko Errugbi Taldearekin harremana izan duten lagunek ere jokatu dute.

ARRASATEAR GUZTIAK GONBIDATUTA

Lagun asko elkartuko dira bihar goizean Garagartzako zelaian, eta omenaldi polit bezain hunkigarria izango da.

Jokalaria 10:30ean elkartuko dira bihar, eta norgehiagoka 11:30ean hasiko da. Atsedendirako, berriz, Arrasateko Errugbi Taldeak Mikelen senideei zuzendutako omenaldi txiki bat prestatu du. Arrasate Errugbi Taldeak arrasatear guztiak gonbidatu gura ditu omenaldira.



Mikel Biterik hiru urte egin zituen Arrasate Errugbi Taldean: bi urte gazte mailan eta urte bat seniorretan.

ARRASATE PRESS

Maritxu nora zoz...
Zure ametssetako
edet...
trajea dugu...
Iturrira Bartolo...
nahi...
iturrian zer dago...
ardotxo luxuria
biok edango da...
nahi degun...

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.

Maritxu Kajoi
2003

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

Emakume txokoa



Zatoz eta parte hartu!

Irailaren 25ean, 19:00etan, Emakume Txokoan


EMAKUMEA ETA MENDIA

Edurne Pasaban

Eta

Oihulari Clown

Ikastaroak abian. Informa zaituz eta izena eman!



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



EKIN EMAKUMEAK

Ekin Emakumeak elkarteko partaideek abilezia handia dute taloak egiten, eta herriko jai askotan egiten dituzte.

IKASTAROAK/ Ekin Emakumeak elkarteak ikasturtea hasi du

Ekin Emakumeak elkartearen kultura eskaintza abian

IKER BARANDIARAN

Ekin Emakumeak elkarteak zortzi urte bete ditu, eta urtero-urtero hainbat ekimen antolatzen ditu. Ikasturtean ere hainbat ekintza antolatu ditu. Elkartearen arduradun Leire Aperribairen esanetan, ekintzak gizon eta emakumei irekita daude.

Ekin Emakumeak elkarteak AEDren baitan sortu zen. Hain zuzen, AEDko Kultura Sailaren barruan zegoen. 1995ean, Ekin Emakumeak erakundetu egin zen eta ordutik hona ibilbide propioa egin du. Azken lau urteotan Leire Aperribai arrasatearra da elkartearen arduraduna, eta hark azaldu zizkigun elkartearen hiru helburu nagusiak: "Arrasateko emakumeen garapena bultzatzea, euskara dela medio; euskararen normalizazioa emakumeen artean bultzatzea; eta antzeko beste erakunde batzuekin harremanak finkatzea, besteak beste, euskara eta emakume elkarteekin".

ESKULANEK ETA DANTZEK, HARRERA ONA Ekin Emakumeak elkarteak urtero honako ekintza finakoak antolatzen ditu: eskulan, dantza eta talogintza ikastaroak eta bidaiak.

Horiez gain, iaz hastapen mailako sukaldaritza ikastaroa antolatu zuten, baita eskubideen eta autoestimua gainera lantegiak ere. Azken horiek arrakastatsuak izan ziren. Urtean, gutxi gorabehera, 100 bat lagunek hartzen dute parte elkartearen eki-

menetan. Eta horien artean emakumeak dira nagusi, jakina. Hala ere, Leire Aperribai nabarmendu gura izan zuen elkartearen ekimenak gizonetako edo emakumetako direla, "nahiz eta batez ere emakumei zuzenduta egon".

Hala ere, salbuespenak salbuespen, hastapen mailako sukaldaritza ikastaroa eta ikasturte honetan estreinatuko duten jostintza lantegia gizonetako parte har dezaten pentsatuta daude, "gizonetako autonomia pertsonala bultzatzeko eta gizonetako

horien bikotekide, ama edo amandreek lan horiek har ez ditzaitez", azpimarratu zuen.

Elkarteko arduradunaren esanetan, Arrasateko emakumeek gustuko dituzten ekintzak honako hauek dira: eskulan eta dantza ikastaroak, hain zuzen ere. Urtero-urtero hainbat emakumek errepikatzen dituzte ikastaro horiek, eta lagun berriek ere hartzen dute parte.

Ekintza gehienak AEDko txokoan egiten dituzte, baina hementik aurrera, seguruenik, Emakume Txokoa ere erabiliko dute.

Izenematea zabalik dago

Elkarteak ikasturte honetarako antolatu dituen ekimenen artean, hainbat berritasun daude: batetik, hastapen mailako jostintza lantegia. Sei orduan, botoiak, kremaierak eta bestelakoak konpontzen ikasiko dute; eta bestetik, aurten orratz-lanen lantegia Musakolako auzo alkatetzaren aretoan antolatu dute, elkartearen ekimenak auzoetara hurbiltzeko asmoz.

Azaroaren 13tik abenduaren 15era bitartean, astelehenean, aretoko dantzen maila ertaineko ikastaroa antolatu dute. Sakontze maila, berriz, azaroaren 5etik abenduaren 17ra egingo dute, eguaztentean.

Urriaren 7tik abenduaren 16ra, martitzenetan, eskulan ikastaroa egingo dute. Irakaslea Mila Akizu izango da. Urriaren 2tik abenduaren 18ra bitartean, eguaztentean, orratz-lanen lantegia egingo dute Musakolako auzo alkatetzaren egoitzan. Irakaslea Asun Mendizabal izango da. Urriaren 15ean, 16an eta 17an, berriz, hastapen mailako jostintza lantegia egingo dute. Eta aurten ere ez da txangorik faltako: urriaren 25ean, Araba aldera egun bateko txangoa egingo dute. Edozein ekintzatan parte hartzeko, izena eman irailaren 26a baino lehenago Pablo Urangan duten egoitzan.

Goikobalu hasi da taldeak eratzen eta entseatzen

I.B.

Goikobalu abesbatzak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean. Horretarako, abeslari gazte eta helduen harrobia prestatzen dihardu. Egoitza propiorik ez duen arren, taldeak eratzen dabil eta entseguak hasi ditu.

Goikobalu abesbatzak urteak daramatza kontzertuak eskaintzen, eta, horrez gain, arrasatearrak gaztetatik abestera ohitu eta zaletu ditu. Goikobaluren baitan gero eta talde gehiago daude, eta dagoeneko ikasturte honetako entseguak hasi dituzte.

Goikobalu abesbatzak, hau da, 16 urtetik gorako lagun taldeak, eguaztentean Gazteluondoko aretoan entseatzen du, 20:00etatik 22:00etara, eta martitzenetan Arrasate Musikalen, 21:00etatik 22:30era. Goikobalu Gazte, berriz, 12 eta 16 urte artekoek osatzen dute, eta eguaztentean hitzordua, 19:30etik 20:30era.

GOIKOBALU IZARTXOAK, BERRIENAK

Eguaztentean, berriz, Goikobalu Txiki entseatzen du. Talde hori 9 eta 11 urte arteko umeek osatzen dute, eta 19:15etik 20:00etara jarduten dute.

Bestalde, aurten berrikuntza garrantzitsua egin du Arrasate-

ko abesbatzak; izan ere, Goikobalu Txiki abesbatzan dagoen abeslari kopurua eta partaideen adina kontuan hartuta, banaketa egin dute. Horren ondorioz, Goikobalu Izartxoak sortu dute. Hain zuzen, 6 eta 8 urte arteko umeak sartu dituzte talde horretan. Eguaztentean hitzordua Gazteluondoko aretoan, 18:15etik 19:00etara. Zera dio Goikobaluko Maribel Hernandezek: "Helburua da umei txikitatik jolasekin, musikarekin... abesten erakutsi eta abesbatzetan parte har dezaten animatzea. Abesbatzako harrobia ziurtatu gura dugu".

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

Abesbatzaren premia handiena da egoitza propiorik ez edukitzea, baina abesbatzan lagun gehiagok izena ematea ere onuragarria izango litzateke.

Abesbatzako arduradunek gonbita egiten diote gura duenari entseguetara joateko eta parte hartzeko. Maribel Hernandezek ARRASATE PRESSi azaldu dienez, parte hartzeko ez da baldintza handirik behar: "Derrigorrezkoa da belarri ona edukitzea eta abesbatzarekin bat egingo duen ahotsa edukitzea, baina ez da solfeo ezagutzarik behar. Interesatuak belarri eta ahotsa probak egiten dizkiegu".



GOIKOBALU

laz, Santa Zeziliako kontzertuan Goikobaluko talde gehienak batu ziren.

LABUR

Aurreko urteotako ekimenari jarraituta, pintura ikastaroa antolatu dute Monterronen

Monterrongo ganbaran pintura eskolak ematen dituzte. Arte Ederretan lizentziadun Amaia Bengoak ematen ditu. Eskola horiek oso harrera ona dute, bai umeen eta gaztetxoaren artean baita helduen artean ere. Batez beste, 150 bat lagun ibili ohi dira, urtero, margotzen ikasten. Talde mugatuak izaten dira; gehienez, hogeitaz laguneko taldeak osatzen dituzte. Eta egunean bi taldek jasotzen dituzte eskolak: 8 urtetik gorako ume eta gaztetxoaren talde batek eta helduen talde batek. Zazpi talde osatu ohi dituzte.

Eskolak irailaren 22an hasiko dira eta ordutegiak honako hauek izango dira: lanegunetan, 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Astean hiru orduz jardun gura duenak 105 euro ordaindu beharko ditu eta ordu eta erdiz jardun gura duenak, 52,5 euro. Interesatuok jo Monterronera lehenbailehen edo deitu 943 77 01 05 telefonora, izenematea epea bukatzeaz dago-eta.

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEKUTXA IKASTAROAK

Gaztekutxak hainbat ikastaro antolatu ditu 29 urte arteko gazteendako

IKER BARANDIARAN

Aula Gaztekutxak, Kutzaren ekimenak, 16 eta 29 urte arteko gazteendako hainbat ikastaro antolatu ditu. Eta Arrasaten bertan egongo da horrelako hainbat ikastaro egiteko aukera.

Kutzak, Aula Gaztekutxa ekimenaren bitartez, Gipuzkoako gazteendako hainbat ikastaro antolatu ditu. Eta Arrasaten hainbat ikastaro egingo dituzte: irudien tratamendua Photoshop programarekin, 3D diseinua, web orrien animazioa eta edizioa, diseinu grafikoa Autocad-ekin, Internet eta musika, latindar dantzak, makillajea eta yogaren hastapenak, besteak beste.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Aula Kutzaren bitartez ikastaro horiek kontratatu gura dituztenek hainbat baldintza bete behar dituzte: eskaera egin gura dutenek Kutzako bezero izan behar dute, eta ikastaroaren matrikularen zenbatekoa Kutzan duten kontuan zordundu edo kargatuko diete. Horrez gain, ikastaroren baten parte hartzeko eskaera egiten dutenen adinak 16 eta 29 urte artekoa izan behar du. Adin hori gainditzen dutenek beste eskaintza mota bat izango dute. Esan beharra dago Gaztekutxa kontua dutenei deskontuak egingo dizkietela.

Dagoeneko zabalik dago

Gaztekutxa ekimenaren bitartez, Kutzako bezeroek deskontuak izango dituzte


Arrasaten bertan ikastaro ugari emango dituzte, urritik martxora bitartean

urria eta abendua bitartean egingo diren ikastaroetan parte hartzeko matrikula epea. 2004ko urtarriletik aurrera antolatuko diren ikastaroen izena emateko epea, berriz, azaroaren 3an zabalduko dute.

Izenemateak Internet bidez (www.begira.com) edo telefonoz (943 44 08 63) egin ahal izango dira, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 14:30era.

URRIAN, ESKAINTZA ZABALA

Urrian honako ikastaroak antolatuko dituzte Arrasaten: web orrien edizioa Dreamweaver programarekin, Bastida akademian;



ARRASATE PRESS

Ikastaro horiek herriko akademia eta gimnasioetan egingo dituzte.

yogaren hastapenak, Arrasateko Yoga Elkartearen, Jose Luis Iñarra pasealekuan; latindar dantzak, San Bixente Ferrer kaleko Lirain gimnasioan; eta makillajea, Araba etorbideko Bastida akademian. Arrasaten egingo dituzten informatikako ikastaro gehienek 50 euro bitarteko matrikula dute, eta gainerako ikastaroek 15 eta 25 euro bitarteko matrikula dute. Horrez gain, ikastaro gehienak

lau egunekoak izango dira, batez beste hamabost ordukoak.

Matrikula egin eta denbora gutxira zordunduko dute ordaindu beharrekoa kontuan. Horren harira, ikastaroren baten parte hartzeko izena eman eta gero, norbaitek baja ematen badu, ahalik eta lasterren jakinarazi behar du. Eta ikastaroa hasita badago, berriz, ez diote bueltatuko matrikularen zenbatekoa.

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

LEBER
KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

AURRE HARTU AURTENGO IKASTURTEARI
Hasieratik eskaini zure seme-alabari behar duen laguntza
Utzi profesionalen eskuetan

Basabe poligonoa C-2
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 56 98
lebercb@euskalnet.net

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

MEHER
Bañez doktorea, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Marixutarako prest!

BEHEKOAKADEMIXATIK

Iain Mac Gregor

IDIOMASTER AKADEMIXAKUE

XABIER URZELAI

Honezkeru jakingo dozue Iain nungue dan. Bai, abizenak ez dau kalerik egitten, Iain eskoziarra da, eta 11 urte daroie Mondraguen. Lelengo aldiz lagun bat bisitetan etorri zan, eta 15 egunien, Bergaran egin euen Korrika jaixe, Maritxu Kajoi eta Oñatiko jaixek harrapau zittuen. Eta hamen bizi da oin.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Astronauta.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bai, illetargittik bueltatxue emuteko ez bada be.

Drogak legalizauko zeuke?

Drogena arazo haundixe da, baiñe ilegalizaute ez da ezer konponketan.

Eta prostituziñue?

Ilegala da, ala? Kondiziño hobien egon biher badie, legalizaute hobeto.

Nora juengo zitzake gustora?

Zeelanda Barrire.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Fregetie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Bai, kalera urtetie gustetan jat. Londresen oso ondo, baitta Maritxutan be.

Bizio bat?

Motorrak.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Lan honetan ezin da oso zorrotza izen. Izan be, batzuetan konturaketan naz jentiek ez daukola lanerako gogorik, eta planak aldatu egin biher dittut, klasie inprobisau.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Azkeneko aldiz Irakeko gerriagaittik egin geuen lanuztie. Gerrarik egon ez dain, orokorrien.

Denpora librien ze egitten dozu?

Mendire juen, motorrien ibilli...



"Batzuetan jentiek ez dauko lanerako gogorik, eta klase bat inprobisetako gauza izen biher gare"

Pertsona baten, zertan fije-tan zara lehenengo?

Umore ona daukon edo ez.

Janari eta edari gustokue-nak?

Jateko, pastie; edateko, barriz, eskoziarra nazenez, whiskyxe esango dot.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

AHTrik ez dauela egin biher, eta errekek garbi dauzela.

Zenbat hizkuntza ikesi neike hemen?

Hiru: inglesa, frantsesa eta alemana.

Jente asko apuntetan da oportretan inglesak daukon inportantzia konturatu dalako?

"Asko igerten da klasetik kanpo zeñek egitten dauen lan. Asko aurreraketan da"

Bai. Normalien enkueta antzeko bat egitten dogu, eta askok esaten daue horregaittik apuntatu diela.

Hizkuntzak ikestie gaztien kontue da ala horretarako ez dau edaderik?

Gauzak ikesteko ez dau edaderik. Argi dauena da gaztie zarenien errexau ikesten diela gauzak.

Hizkuntzak ikesteko gogue ala dirue biher da?

Batez be gogue. Dirue euki baiñe gogorik ez badau...

Telebisiñuen ikusi dot inglesa lau egunien ikesi neikela.

(Barriek). Nik esango neuke hizkuntza bat ikesteko lau egun baiño gehitxuau biher diela.

NIREBIDAIAHURA/ Jose Manuel Ezkerra

Vietnam / 2003ko abuztuan

Jose Manuel, *Mamel* ezizenaz ezaguna, Vietnamen egon da abuztuan: "Aspalditik neukan Vietnamera joateko gogoa. Izan ere, haren inguruan dauden gainerako lurraldeak ezagutzen ditut, eta Vietnam bakarrik falta zitzaidan bisitatzeko". Bidaia beste hiru lagunekin egin du, eta oso gustura etorri da. "Leku ederria da Vietnam, hango bizilagunekin oso harreman ona izan dugu, eta paraje ederretan ibili gara gora eta behera. Oso leku interesgarria da".



"Keinu bidez komunikatzen ahalegindu ginen, baina ezinezkoa zen"


Hanoïn hasi zuten bidaia, Vietnamgo hiriburuan: "Hanoi iparraldean dago, eta komunismoaren eraginez iparraldearen eta hegoaldearen artean ezberdintasun handia dago". Hanoitik kostaldera egin zuten lau lagunek, Halong Bayra, hain zuzen ere: "Izenak dioen moduan, Halong Bay badia bat da, zazpi mila uharte dituen badia". Kostaldean egon eta gero, bidaiariek mendi aldera egin zuten: "Auto bat alokatu genuen, 40 urte zituen jeep moduko bat, baina errusiarra. Ederto portatu zen autoa. Paraje ikusgarriak zeuden han, eta oso ederra zela iruditu zitzaidan". *Mamel* Vietnamen konturatu da ingelesez berba egiten jakitea zein garrantzitsua den: "Kurdistanen egon nintzanean, hangoek ez zekiten ingelesez, eta keinuen bidez ulertzen genuen elkar. Vietnamgo iparraldean, baina, keinuek ez dute ezertarako balio, eurek beste keinu batzuk erabiltzen dituztelako. Gosez geundela esateko keinua egin, eta ez zuten ulertzen".

Iparraldeko mendietan lau egunez egon ziren, eta segidan hegoalderako bidea hartu zuten: "Kostalderaino joan eta hegoalderako bidea hartu genuen. Vietnam oso lurralde estua da, baina hiru mila kilometro luze da. Bidaia tren ez egin genuen, eta esan beharra dago oso tren onak dauzela. Bidean hainbat egun egin genituen hondartzan, eta a zer-nolako hondartzak!". Bada, datorren astean Vietnamen segituko dugu; izan ere, hegoaldearen gainean ere asko dago kontatzeko.

XABIER URZELAI



Da Nang-eko kostaldeari ateratako argazkia.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

PUB HAIZEA



arrasate

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ZAHARRENETXETIK

LABUR

Musakolako erretiratuek, Santoñara txangoa

Musakolako erretiratuak egoitza berria noiz egingo duten zain daude, aspalditik duten egoitza txikiegia gelditu zaie-eta.

Edozelan ere, ekintzak egingen segitzen dute. Hala, martitzenean, irailaren 23an, Santoñara joango dira. 08:00etan irtengo dira, eta Santoña, Isla eta Castro Urdiales bisitatuiko dituzte. Interesatuak 15 euro ordaindu behar dituzte.

Berbaldiak antolatu dituzte Uribarriko elkarteak

Uribarriko erretiratuek ikasurtea hasi dute, baita ondo hasi ere. Joan den asteburuan Uribarri-Erguingo jaiak ospatu zituzten, eta 110 lagunek afaria izan zuten.

Martitzenean, irailaren 23an, Mertxe Acera psikologoak *Zahartzaroa osasuntsu bizi* izenburuko berbaldia egingo du. Eguaztenean, berriz, gripearen aurkako txertoa jarriko dute, 11:00etatik 12:00etara.

Eta urriaren 2an Trapaga eta Zugaztieta bisitatuiko dituzte. Interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Berbaldia eta gripearen aurkako txertoa Toki Argin

Eguenean, irailaren 26an, Santa Marinako Toki Argi elkarteak zorientasuna izango dute berbagai. Berbaldia 17:00etan egingo dute. Eguaztenean, irailaren 25ean, berriz, gripearen aurkako txertoa jarriko dute Toki Argi elkarteak.

Bestalde, urriaren 3an, Maritxu Kajoi egunean, Abaroa elkarteak luntxa egingo dute, 18:30ean. Bazkide diren guztiak irailaren 15a eta 25a bitartean eman beharko dute izena, Abaroako bulegoan, arratsaldeetan.



Antzuolako erretiratuen elkarteko Mari Cruz Lezetak eta Juanita Urbistondok prestatu zituzten ondoen patatak Errioxako erara.

IKER BARANDIARAN

Antzuolarrek irabazi zuten eskualdeko erretiratuen Gastronomia Txapelketa

IKER BARANDIARAN

Joan den egunean, irailaren 11n, giro ezin hobea izan zuten Abaroa elkarteak. Hain zuzen ere, eskualdeko erretiratuen Gastronomia Txapelketa izan zuten. Arrasateko hiru elkartetako bikoteak lehiatu ziren: Abaroakoak, Uribarrikoak eta Toki Argiakoak. Horiez gain, Aretxabaletako Basotxok eta Antzuolako erretiratuen elkarteak ere hartu zuten parte.

17:30ean piztu zituzten suak, eta bost bikoteak lan eta lan ibili ziren Abaroako sukaldean. Bikote guztiak osagai berak erabili zituzten: hiru kilo patata, lukainka-piperrak, piper berdea, kipula, berakatz eta piperrautsa. Hamar parte-hartzaileetatik sei emakumeak izan ziren,

eta lehiakide batek baino gehiagok irabazia zuen beste txapelketarik. Hortaz, lehia gogorra izan zen.

EPAIMAHAI JANTZIA ETA LEHIA GOGORRA
Epaimahaia bi lagunek osatu zuten: bakailao lehiaketa asko irabazi dituen Valentin Morenok eta Norberto Mondragonek. Biak hala biak, arrasatear ezagunak. Baina lehenengo saria ez zen Arrasaten gelditu: Antzuolako erretiratuen elkarteko Juanita Urbistondok eta Mari Cruz Lezetak irabazi zuten. Bikote horrek 38 puntu eskuratu zituen, eta eskualdeko erretiratuen elkarteak oroigarri berezia egin zien opari: sukaldari baten irudia zuen estatuatxo berezia, hain zuzen.

Herriko bost erretiratuen elkarteetako ordezkariak batu ziren txapelketa ikustera, 30 bat

lagun, baita txapelketan ordezkariak izan ez zuten Musakolakoak ere.

20:00etan epaimahaiak saria eman zuten, eta Abaroan batutako ordezkariak afaria egin zuten. Patatak Errioxako erara dastatzeko aukera bost alditan izan zuten, eta horren ondoren, gazta eta irasagarra. 21:30ak aldera etxera jo zuten han batutakoek, gustura afalduta.

DEBAGOIENAKO ORDEZKARIAK

Bikote antzuolarrek Debagoieneko erretiratuak ordezkatu dituzte Gipuzkoako erretiratuen Gastronomia Txapelketan. Gipuzkoako finala urriaren 14an egingo dute, Donostian, eta zortzi bikote lehiatuko dira, Gipuzkoako eskualde bakoitzeko bana. Ea Donostiako txapelketan zein menu egin behar duten!

Irabazleak aditzera eman ondoren, 30 bat lagunek dastatu zituzten patatak Errioxako erara

Bikote antzuolar batek ordezkatu du Debagoiena Gipuzkoako Txapelketan

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

“PAL”

Burindegia
Brikolajea
Tresneria

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ARRASATE
Oihana Irazu
Irailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak! Aita, ama eta Markel.



ARRASATE
Ane Juaristi
Irailaren 9an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Amaia Arejolaleiba
Irailaren 3an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Miren Arejolaleiba
Irailaren 26an, 8 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mari Angeles Okina
Irailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Miren, amaia, Maddi eta Alaitz.



ARRASATE
Nerea Garai
Irailaren 17an, 3 urte. Zorionak! Maialenen eta familiakoen partetik.



ARRASATE
Irene Dolara
Irailaren 16an, 6 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Jose Antonio Guerrero
Irailaren 19an, urtebetetzea. Zorionak! Arrasateko eta Aramaioko familia.



ARRASATE
Lide Galdos
Irailaren 23an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARAMAIO
Rufina Astola
Irailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Seme-alabak eta bilobak.



ARRASATE
Ander Manzano
Irailaren 16an, 8 urte. Zorionak! Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazuzen ederra! **Doan!**

Hastapen mailako jostuntza tailerra

Lan txikiak norberak egiten ikasteko eta ondo pasatzeko:
botoiak, kremailerak, barrenak...
Egunak: urriaren 15ean, 16an eta 17an.
Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Aretoko dantzen ikastaroa

Irakaslea: Natalio Maiztegi
Maila ertaina: azaroaren 3tik abenduaren 15era,
asteleheneretan, 15:00etatik 16:30era.
Sakontze maila: azaroaren 5etik abenduaren 17ra,
eguztenetan, 15:00etatik 16:30era.

Eskulan ikastaroa

Eskulanetako teknikak landuko dira: egurra, laminak, margo-
tzea, birziklatzea, Van Dal, eztainua, zilarra, beruna eta kristala.
Urriaren 7tik abenduaren 16ra, martitzenetan, 15:30etik
17:30era edo 18:00etatik 20:00etara.

Orratz-lanen tailerra

Puntua, gantxilloa, bainika, gurutze-puntua...
Irakaslea: Asun Mendizabal.
Urriaren 2tik abenduaren 18ra, eguenetan, 15:00etatik
17:00etara.
Lekua: Musakolako auzo alkatetzaren lokalean. Maisu
Aranbarri 4, behea.

Udazkeneko txangoa

Urriaren 25ean egun bateko txangoa egingo da Araba aldera.

Izenemateak: Ekin Emakumeak elkarteak,
irailaren 26a baino lehen.

Ekin
Emakumeak • AED

INFORMAZIO GEHIAGO
ETA IZENEMATEA,
HELBIDE ETA TELEFONO
ZENBAKI HONETAN:

Paulo Uranga 6
943 79 83 70
651 70 79 36

EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Arrasateko zein eraikinek dauka argazkian ikusten duzuen sarrera hori?
Arrastoa: musika gogoko duten askok zeharkatzen dute egunero ate hori.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Gula del Norte
200 g + %25 doan

4,60€ 765 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IOSUNE TXINTXURRETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, iosune!
Galderen erantzun zuzena:
Bedoñako gurutzea.

ARRASATEKO HISTORIA

Artazubiagako Bañeztarren gaineke antzinako kontuak (II)

ION ANDER RAMOS

Aurreko astean, Bañez de Artazubiagaren gaineke berba egiten hasi ginen. Mary Ibañez de Salinasekin ezkontuta utzi genuen Martin Bañez, eta, besteak beste, Juan Bañez semea aitaren ondorengo zuela. Kontatu genuen moduan, Juan Bañez Bidaurreko Hauria Ibañezekin ezkondu zen eta, beste seme-alaba batzuen artean, Otxoa izeneko semea izan zuten.

Otxoak 1448ko Arrasateko erreketan parte hartu zuen. Gogora dezagun Bañeztarren Ganboatarren aldeko zirela bandokideen arteko borroketan. Hala, 1448ko zoritxarreko egun hartan, Butrore Jauregiko jaun Gomez Gonzalez Oinaztarrei laguntza ematera etorri zela ikusita, Ganboatarrek Arrasate-ri su ematea erabaki zuten, modu horretan, Bizkaiko jauna harrapatu eta hilko zutelakoan. Guztiok dakigu zeintzuk izan ziren haren ondorioak.

Hala, erreketan zela-eta prozesua egin zutenean, beste auzokide batzuekin batera Otxoa Bañez kondenatu egin zuten eskuak eta oinak lotu eta

1454. urtean, Martin Bañez eta Juan Ibañez erail egin zituzten bost Oinaztarrek

Otxoaren semea, Fray diego domingotarra, Santa Teresa Jesusenaren aitorle izan zen

bizirik erretzera, hura izan zen eta Arrasate erretzeko asmoaren bultzatzaileetako bat.

Edozelan ere, sententzia hura ez zen bete, auzi-iheslari-tzat jo zutelako. Eta gero, 1451. urtean epaiketa izan zutenean, absoluzioa lortu zuten. Urteak geroago, ordea, 1454. urtean, Martin Bañez eta Juan Ibañez Ibarretako burdindegitik Arrasatera zetozela, bost



UBANE MADERA

Joan den astean argitaratutako argazkiak ez zuen erakusten Bañeztarren etxea; irudiotakoa duzue haien etxea.

Oinaztarrek erail egin zituzten. Otxoa Bañezengana itzuliz, hark lau seme-alaba izan zituen, tartean, aitaren ondorengo izan zen beste Otxoa bat. Eta Otxoaren semearen semea Fray Diego

domingotarraren aita izan zen. Fray Diego oso ezaguna izan zen bere sasoiari. Izan ere, Salamancako Unibertsitateko teologoa izan zen, eta Santa Teresa Jesusenaren aitorle sei

urtez. Fray Diego ez zen Arrasate bizi izan, baina asko maite zuen arbasoen jaioterria. Hala, bere idatzietan zera ipintzen zuen: *Auctore Domenico Bañez Mondragonensi.*

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko irailaren 19a / 77. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aitor Aranaren omenezko VII. mendi ibilaldia izango da irailaren 27an

UBANE MADERA

Datorren zapatuan, hilak 27, egingo dute Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia. 37 bat kilometro izango ditu, eta igo beharreko mendien artean Orixol eta Jarindo daude. Gutxi gorabehera zazpi-zortzi bat orduko ibilaldia izango dela kalkulatzen dute antolatzaileek.

Zazpigarren aldiz antolatu du Orixol elkarteak mendi ibilaldi hori. Urtero ibilbide berria aukeratzeko ahalegintzen dira, ohikoak ez diren lekuak ezagutzeko. Eta aurtengo ere hala egingo dute. Hauxe da egin beharrekoa: Ibarra-Kurtzeta-Jarindo-Marixeka-Mirugain-Oleta-Lezia-Orixol-Ibarra. Guztira, 37 bat kilometro. Tartean, Oleta atzetik joango dira, Atxineko lehengo baserriaren ondok. Seguru aski jende askok ezagutzen ez duen bidea da hori.

Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, zazpi-zortzi bat orduko ibilaldia da. Bidean, ibiltariak indarrak berreskuratu dituzten, hiru hornidura eta kontrol zona izango dira: Marixekan, Oletan eta Lezian. Jogurtak, freskagarriak, salda, gazta, txorizoa...



ORIXOL MENDI ELKARTEA

Iaz, 130 bat lagunek hartu zuten parte Orixolek antolatutako mendi ibilaldian.

emango dituzte.

Eta, ibilaldia bukatzean, dutxa hartzeko aukera egongo da Ibarrrako kiroldegian.

Izena emateko honako bi tele-

fonoetako batera deitu beharra dago: 615 75 28 13 (Aitor)-edo 658 70 48 58 (Unai). Edozelan ere, egunean bertan Ibarren agertzearekin nahikoa da. 08:00etan irten-

go dira ibiltariak, kiroldegitik.

Bost euro ordaindu beharko dira aurtengo ibilaldian parte hartzeko; 18 urtetik beherakoek eta langabeek, berriz, ezer ere ez.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre · Ikaslea

Jendeak lo hartu du, gabon denoi

Orixolen egon nintzen aurreko batean. Distira berezia duten egun horietako bat zen, argitsua, lasaia, haize apur batekin. Iraila. Hala ere, sekulako negu usaina zegoen. Santi-kurtzeko ermitan amamaren errautsak zabaltzera joana zen lagun batekin aurkitu nintzen. Tontor aldera joanda bide osoan zehar eguzkiak jotzen zuela sentitu nuen: pagoek historik ez, noski, udan egindako beroarekin denak erorita. Orbelezko alfonbra gigantea oinpean. Dena hilda eta aldi berean bizirik.

Harkaitz Canok BERRIAN idatzi zuen mitinak ematera gaua autoan lo pasa ondoren

joaten zen jende falta dagoela gaur egun, Salvador Allende gogoratu. Jendeak beste era batera ikusten dituela gauzak. Ez dagoela lehengo bizirik, ametsik, zapata apurtuz beteta ditugula memoriaren kajoiak. Trantsizio garaiko Euskal Herrian etorkizunak jaten omen zuen oraina, guztia egiten zen aurrera begira, bizirik zeuden baita harriak ere, esperantza arnasten zen



Asuntoa da nork kulunkatzen duen sehaska

erreka-zuloko bazterrik ilunenean ere. Garaitsu hartan idatziko zuen Gloria Fuertes-ek tabakoz horituriko atzamarrekin, "si la realidad es gris, yo la pongo verde"...

Eta orain berriz Orixol atzeko zuhaitzak ere grisak dira. Beldur naiz Atxagaren trikua ahozabalka

hasi ote den edo... Jadanik ez gara harritu ere egiten 25.000 biztanle dituen Arrasate bezalako herri batean bertako

zine bakarria ixteak, zeluloidegose den jenderik ez dagoelako (Cinema Paradiso ikusiz negar egin genuenok malditoak garen edo...). Gernika eta Ordiziako ferietako saltzaileek usteltzen ikusten dituzte barazkiak, Eroskitik maleteroa poltsaz beteta duten autoak paretik pasatzen zaizkien bitartean...

Dena dago gordeta, dena isilik, mundu gainera izara beltz astun bat jausi izan balitz bezala. Jendeak lo hartu du esna segitzen duela konturatu gabe. Asuntoa da nork kulunkatzen duen gizartea gozo-gozo etzanda daukan sehaska...

Hauxe da ibilbidea: Ibarra-Kurtzeta-Jarindo-Marixeka-Mirugain-Oleta-Lezia-Orixol-Ibarra

Lehen esandako moduan, Orixol Mendi Elkarteak antolatu du ibilaldia. Hain zuzen ere, guztia gertu eta behar den moduan egoteko, 20 bat lagunek ibili beharko dute lanean.

ZUZENDARITZA ALDAKETA

Bestalde, eta Orixol elkartearekin segituz, esan beharra dago aurtengo talde horrek zuzendaritza batzorde berria estreintatu duela. Honako hauek dira kide berriak: presidentea, Aitor Astondoa; diruzaina, Beñat Ibar-guren; idazkaria, Aitziber Aginagalde; eta batzordekideak, Unai Kortabarria, Ibai Bailez eta Iñaki Arriaran.

Datozen bi urteotan-edo jardungo du talde horrek. Esan digutenez, gainera, animoso dotoz lanera.

LABUR

Besaideko Oroitzapen Egunerako deia

Domekan Besaideko Oroitzapen Eguna ospatuko dute. Hala, Orixol elkarteak hara joateko irteera antolatu du. Interesa duenak plazan agertu beharko du etzi, domekan, 09:00etan. Gero, Besaiden, 10:30ean mendizaleei harrera egingo diete, txalapartarekin eta adar-rarekin; 11:00etan meza izango da; 12:00etan dantzak, Elorrioko Besaide dantza taldearen eskutik; eta 12:30ean herri-kirolak. Horrez gain, trikitilariak izango dira, baita txosna ere.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BERRIRO PILOTAN

Iazko martxan segituko du aurten Barea pilota taldeak. Hala adierazi digu taldeko arduradun Eneko Aspek. Edozelan ere, oraindik umeak eskolan goizez dabilenez, apurka-apurka joango dira martxa hori hartzen. Kontuak kontu, beste urtebetez Aramaioko neska-mutikoen pilotan jarduteko aukera dute. Honako hauek dira entrenamenduen ordutegiak: txikienendako, astelehene-tan eta eguaztentean, 17:00etatik 18:00etara, eta barikuetan, 18:00etatik 20:00etara. Eta nagusiagoendako, martitzenetan eta eguaztentean, 19:00etan hasita.

ZINEMA

El Rey Escorpión filma emango dute.

YOGA IKASTAROA

Irailarekin batera hasi da aurten yoga denboraldia. Astelehene-tan eta eguaztentean 18:30etik 20:00etara eta 20:00etatik 21:30era izango dira eskolak. Eta martitzenetan eta barikuetan, 09:00etatik 10:30era. Izena emateko: 943 78 17 83 edo 945 44 53 23.

Egin dute udaletxea berritzeko proiektua; lanok esleitzea falta da

UBANE MADERA

Herriko udaletxea berritzeko proiektua eginda dago. Kanpoaldetik ez dute lan handirik egingo; barruan, ordea, besteak beste, zailtasunak dituztenendako igogailua ipiniko dute; horrez gainera, udal bulegoen banaketa erabat aldatuko dute.

Udaletxearen kanpoaldean igarriko dugun aldaketa handiena igogailura sartzeko ate berria izango da. Sarrera nagusiaren ondoan egongo da, egurrezko jarlekua dagoen lekuan. Hala, igogailua han hartu ahal izango da, eta gero, osoko bilkuren aretoraino igo; huraxe izango du aurreneko geraleku: zuzen-zuzenean bilkuren aretora, inolako eskaillerarik igo barik. Gero, jakina, goiko solairuraino iritsiko da igogailua.

Hain zuzen ere, goiko solairu horretan ipiniko dute herri-tarrekiko harrera-bulegoa (Judith eta Txaro dauden lekua); eta haien ondoan lau udal langilerendako bulegoak egokituko dute. Hori egiteko, lehengo liburutegiaren aretoa erabiliko dute. Bestalde, goian dagoen zinego-



Lehenengo solairuan dagoen harrera-bulegoa goiko solairuan ipiniko dute, lehengo liburutegia dagoen lekuan.

tzien gela bere horretan utziko dute; komunak egokitu egingo dituzte, ezinduendako; eta orain udal langileek erabiltzen dituzten bulegoak egokitu eta alkatetzarako, idazkaritzarako eta kontu-hartzailearendako izango dira.

Bestalde, artxiboa ganbaratik atera eta beheara aldatuko dute. Hain zuzen ere, aurreneko solairuan, orain kafe-makina dagoen lekuan hasi, eta beheko solairuan dagoen biltegi-raino bi solairuko aretoa egokituko dute, artxiboaren-


dako. Eta gaur egun harrera-gela dagoen lekuan udal teknikari bi izango dira.

Lanok egiteko aurrekontua ia 292.000 eurokoa da. Orain, adjudikatzeke lehiaketa deituko dute, eta ostean hasiko dira lanean.



Zinemako harmailak konpontzen

Herriko zinemako harmailen motorrak olio lubrifikatzailea galdu duela-eta, oraingo astean Ecokirol izeneko enpresako langileak kultura etxean izan dira, arazoa zein den ikusten. Adierazi digutenez, motorra kendu eta aztertzeke eramango dute; izan ere, aurrera begira, orain duen olio-ihesa konpondu ezean baliteke motorra guztiz apurtzea. Edozelan ere, jakinarazi digute konponketa lanok laburrak izango direla eta zinema inolako zailtasun barik erabili ahal izango dela. Hala, zapa-tuan zinema emanaldia izango da. /U.M.



KZGuneak ordutegia aldatu du

Eguaztentean, hilak 17, ordutegia aldatu zuen KZGuneak. Hala, hilaren bukaerara arte goizez jardungo du, 09:00etatik 13:00etara. Horrez gainera, 10:00etatik 12:00etara oinarritzko Interneten gaineko ikastaroa emango dute. Mertxe Elortza izango da irakaslea. Interesa duenak KZGune edo udaletxera jo behar du. Era berean, Mertxe Elortzak aurreratu digu dagoeneko urrirako ere gertu dutela oinarritzko Interneten gaineko beste bi ikastaro: bata aurreneko hamabostaldian goizez izango da eta bestea, bigarren hamabostaldian, arratsaldean. /U.M.

ERRETRATUZAHARRA

Mundakara, gerrako lagunengana

Beste aste batez, gerrako kontuak ditugu berbaigai argazki zaharraren atalean. Oraingo honetan, ordea, kartzelak eta halakoak ahaztu eta oroitzapen hobeak ekarri ditugu gure orrira.

Argazkia 1977. urtekoa da. Gerra aspaldi bukatuta zegoen, eta Franco bi urte lehenago hilda. Egoera hartan, Amaiur batailoiko kideek txango berezia egitea erabaki zuten: Mundakara, 1977ko irailaren 17an. Oraingo astean 26 urte bete ditu argazkiak.

Kontua da gerra garaian, denbora batez, arrasatearrak Mundakako etxe partikularretan egon zirela. Mundakarrak hartu eta zaindu zituzten. Hala, 77ko irailean Amaiur batailoiko kideek erabaki zuten Mundakara joatea, horren ondo hartu eta zaindu zituztenak agurtzera. Hiru autobuskada joan ziren Bizkai aldera. Amaiurko kideak eta haien emazteak eta lagunak.

Mundakan ezin hobeto hartu zituzten, berriro ere. Musika banda eta guzti joan zitzairen ongiatorria egitera. Ondoren, arrasatearrek Mundakako



Kasinoan bazkaldu zuten; eta Arrasatera bueltan, Gernikan geratu ziren, besteak beste, gerra bizi iraun zuen Gernikako Arbola bisitatzen.

Argitaratutako argazkian agertzen direnak txangoa egin zuteneko gutxi batzuk dira; honako hauek, ezkerretik eskumara: Gerardo Garmendia, haren

emazte Esperanza Altuna, Angeles Azkarate, Joakin Garmendia, Santos Sologaitoa, Bittor Murgia (Ikurrinarekin dago; izan ere, hura izan zen gerran Amaiur batailoiko banderaduna, eta sekula ez zuen hura ahazten), Carmen Garai, Askin, ezezaguna eta Javier Zelaiaundi. Eserita honako hauek

daude: Angel Garai, Asun Antxia (Monte tabernakoa), Felix Iraola, Leandro Azkoaga eta Perico Arriola.

Argazkia eta informazioa: Angeles Azkarate
Urtea: 1977ko irailaren 17a


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Nafarroa etorbidetik lanera bidean

Arrasate, Kooperatiba baten ibilbidea liburuan Nafarroa etorbideko argazki ederra dator. Kale hura dezente aldatu den arren, ezkerrean azaltzen diren etxeek berdin-berdin jarraitzen dute. Horrez gain, gaur egun Nafarroa etorbidean ez dabil horrenbeste jende, auto asko bai, baina jende gutxi. Lehen, berriz, lantegira joateko jende asko pasatzen zen handik.



≈ 1958 Zintzilik dagoen lanparak Nafarroa etorbidea argizatzen zuen. Bizikletek gaur egun baino protagonismo handiagoa zuten.



2003 Zerrajerako etxe berriak egiten dituztenean, arrasatear asko joango da hara bizi izatera, eta Nafarroa etorbidean lehen beste jende ibiliko da.

JADE
ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZI!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

arbolapeta

beinke

arrasate

Lilura

OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa. Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ASESORIA ARRASATE

Erdiko kalea 32, 1. Arrasate
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00
asesoriaarrasate@telefonica.net

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

GERTU AHOLKULARIAK

Otalora 38 B. Arrasate
Tel. 943 79 94 21 Faxa: 943 79 86 44
gertu@conet.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com



Udaz



Negua 03



Erdiko kale 4
ARRASATE
943 79 46 94